

Osasun langileen %59k dute euskara gaitasuna egiaztatuta

Tolosaldeko osasun zerbitzuari buruzko azterketa egin du Uemak; Osakidetza langileen %77k dute egiaztatuta hizkuntza-eskakizuna, eta Asuncion zentroko %53k //3

Errebotea Sutan jaialdia antolatu du Behar Zanak larunbaterako

Errebotearen inguruan elkartu eta herrian bizirik jarraitzen duela erakutsi nahi dute; egungo errebote jokalariekin nahiz jokalaria ohiekin osatu dituzten lau talde ariko dira lehian //6

Aralar Institutuan jardunaldi jarraitua nahi dute

Azken bi urteetan jardunaldi jarraitua izan dute, eta hurrengo ikasturtean ere horrela mantentzeko eskatu dute; 300 sinadura baino gehiago bildu dituzte //5



JON MIRANDA

«Tolosan garrantzitsutzat nituen espazioak Hernanin agertu zitzaizkidan»

MAIXA ZUGASTI MUÑOA IDAZLEA

'Atarian' izeneko nobela kaleratu du idazle tolosarrak Erein argitaletxearekin; zahartzaroaz eta maitasunaz hitz egiten du, sei egunetan gertatzen den eta hiru protagonista nagusiren ahotsak biltzen dituen istorioaren bitartez //4

1990
GASTROTEKA
TOLOSA

Endo pasa Sanjoanak!

Berria, originala,
ezberdina...

Euskal Herria plaza, 5 · Tolosa · 943 11 90 17



Kolorez betea dator Amarotz auzoko 24. Antzerki Astea

Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 2an amaituko da; hilaren 29an Iñaki Alonso 'Indio' espeleologoa omenduko dute, 'Heroiek ez dute kaparik' izenburupean

A. Imaz / J. Artutxa

«Antzerki unibertsoaren erdigunean, auzo txiki batean dago kokatuta». Hala dio Amarozko musikariek osatutako Poprockponpero taldeak auzoko antzerki asterako sortutako kantuaren letrak. Antzezlan bakoitzaren aurretik jartzen dute, auzotarrak plazara gerturatzera gonbidatzeko, eta aurrean ere entzun ahal izango da, ekainaren 27tik uztailaren 2ra bitarte ospatuko baita 24. Amarozko Antzerki Astea.

Intujai Teatro konpainiak antolatzen du, Amarotz Auzo Elkartearen babesarekin. 24 urte kolorez beteta da aukeratu duten leloa, eta horri lotuta, kartela egiteko Alpino margoen kaxaren irudia erabili dutela adierazi du May Gorostiaga Intujai Teatroko kideak, 24 margok osatzen dutelako. «Konpainia askoren obren aurre-estreinaleko plaza izaten da antzerki astea, probak egiteko ezin aproposagoa. Jatorri, pentsaera eta ideia desberdinetako ikusleak biltzen gara eta entretenitzeko, hausnartzeko eta auzoa indartzeko balio du».

Duela 24 urte, sinergia moduko bat sortu zela azaldu du Gorostiagak: «Auzoko bizilagun batzuk elkartu ginen; hiru antzerkian aritzen ginen eta beste bat ipuin kontalaria zen. Auzoko festetarako, antzerkiarekin lotutako emanaldiak proposatzea pentsatu genuen, eta konturatzera, lau saio desberdin genituen mahai gainean. Handinahiak izatea erabaki genuen, eta horre-



Iaz, 'Bonba bat naiz' ikuskizuna izan zen, Bea Larrañaga auzotarraren eskutik, Amarozko Antzerki Astea. IÑIGO CABIECES

la sortu zen egitaraua aste oso batez luzatzearen ideia.

HASIERA, HARROBIAREKIN

Auzoko taldeek emango diote hasiera antzerki asteari; Pailaztana Junior antzerki taldearen emanaldia izango da lehena. Gaur egun, 5 gaztetxok osatzen dute eta Berrobin bizi den Ester Poveda aktorea da irakaslea. «Oso gustuko dugu sorkuntza bultzatzea, eta kasu honetan, berriak sortu dute istorioa, baita gidoia idatzi ere», adierazi du Gorostiagak. Taldeko kide batzuk lehen aldiz ariko dira publiko aurrean. «Energia handia dute, eta

ez dira urduritzen», gaineratu du.

Biharamunean, auzoko beste talde baten (Pailaztana Klowne) *Inproklown* saioa izango da. «Lan izugarria egiten dute, eta inprobisazioa ardatz izango duen saioa izango da, gidoi itxirik gabea. Publiko aurrean jarri, eta zuzendariak gaiak jarriko dizkiete. Bat-bateko probak egingo dituzte, gaien arabera».

'INDIO' GOGOAN

Aurtengo edizioa, gainera, oso berezia izango da, Iñaki Alonso *Indio* espeleologoa omenduko dutelako; hain justu, *Indio*-k sortutako Akerbeltz Espeleo taldea ere protagonista dira arestian aipatutako kartelean. Hilaren 29a berari eskainiko diote, *Heroiek ez dute kaparik* izena eman dioten eguna. Goizean, mahai-inguru bat izango da, *Mila esker, In-*

dio! lelopean. «Lagun ugari bilduko gara, bakoitzak gure ikuspuntutik, bere figurari buruz hitz egiteko. Oso maitatua zen auzoan eta bere lana balioan jarriko dugu». Arratsaldean tailerrak izango dira, Amaia Covillar gidariaren, Akerbeltz Espeleo taldearen eta Montes Solidarios elkartearen eskutik; Zirkozaurre taldeak zirku tailerra ere eskainiko du.

Egun horretan, *Ama-Alu-Lur* emanaldia eskainiko dute. «Obra honen prozesuan pertsona oso berezia izan zen *Indio*. Kobazuloetan egon ginen berarekin, eta obraren gidoian agertzen diren gauza asko berari esker txertatu genituen. Atrezzorako ere bere elementu bat erabiltzen dugu», esan du Gorostiagak.

Ostegunean, azken urteetako arrakastari jarraituz, Pintxopoteatro ekimena izango da. Leioako Umore Azokan Euskal Antzerki Konpainia onena izendatu berri duten Orain-Bi konpainiaren *Mute* kale ikuskizuna, Diego Calaviak eta David Blancok auzoko tabernetan eskainiko duten *Gertuko magia* saioa eta Bikustik taldeak rock kantuen bertsio akustikoekin eskainiko duen kontzertua izango dira. «Arratsalde

EGITARAUA

Ekainak 27, astelehena

17:00. Pailaztana Junior taldearen *Zirku berezi bat* emanaldia, Auzo-etxean, publiko guztientzat.

Ekainak 28, asteartea

20:00. Pailaztana Klowne taldearen *Inproklown* emanaldia, Auzo-etxean, helduentzat.

Ekainak 29, asteazkena

11:00. *Mila esker, Indio!* mahai-inguru, Auzo-etxean, helduentzat.

16:30. Espeleologia eta mendi tailerrak kalean, haurrentzat, Amaia Covillar gidariaren, Akerbeltz Espeleo taldearen eta Montes Solidarios elkartearen eskutik.

17:30. Zirku tailerra kalean, haurrentzat, Zirkozaurre taldearen eskutik.

20:00. Intujai Teatro konpainiaren *Ama-Alu-Lur* saioa, helduentzat, Auzo-Etxean.

Ekainak 30, osteguna

17:30. Orain-Bi konpainiaren *Mute* ikuskizuna, kalean, publiko guztientzat.

18:30. Diego Calavia eta David Blancoren *Gertuko magia* saioa, auzoko tabernetan, publiko guztientzat.

20:00. Bikustik taldearen *Rock bertsio akustikoak* musika saioa, kalean, publiko guztientzat.

Uztailak 1, ostirala

18:30. Kicirkeren *Souvenirs* ikuskizuna, kalean, publiko guztientzat.

Uztailak 2, larunbata

12:30. Bapatean Zirko konpainiaren *Adabaki* saioa, kalean, publiko guztientzat.

polita igaroko dugu, ohiko pintxo-potea beste modu batera bizitzeko aukerarekin», esan du Gorostiagak.

AUZOKO FESTEKIN BATERA

Auzoko festak ospatuko dituzte uztailaren 1etik 3ra, eta beraz, antzerki astea azken bi saioek bat egingo dute jaietako egitarauarekin. Batetik, Kike Santiago (Kicirke) burgostarraren *Souvenirs* saioa izango da. «Otsailan estreinatu zuen zirku kutsuko saioa da, oso poetikoa». Bestetik, Bapatean Zirko taldearen *Adabaki* saioa izango da. «Garai bateko pailazoak ardatz dituen ikuskizuna da, testurik gabea».

Herritar oro gonbidatu du Amarotz auzora Gorostiagak: «Bi urte gogor igaro ditugu, eta hala ere, hor egon gara antzerkilariak, presente. Auzoan, gainera, borroka handia izan dugu botikina lortzeko; bada, esango nuke antzerkia dela gure botikin emozionala. Etorri, ikusi eta gozatu».



zozketak

Atarikideentzat liburu bat dugu



Jon Maiaren
Berriak jaio ginen
liburua

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

IRAGARKI LABURRAK

Alokagai

Jatetxe-taberna. Lizartzan jate-txe-taberna etxearekin alokatzen da, Jose Mari jatetxea. Etxeak hiru solairu, bost logela, bi egongela eta bi komun ditu. Interesa duenak, deitu telefono honetara: 943 12 49 04.

Erredakzioa

Uemak Tolosaldeko osasun zerbitzuari buruzko azterketa osatu du, eta ondorioztatu du langileen %59k dutela euskara-gaitasuna egiaztatuta. Osakidetza-koak diren langileen %77k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizuna, eta Asuncion klinikakoak diren langileen %53k. Azken honetan, sendagileen kasua nabarmenagoa da, bertan dauden 79 medikuek soilik 13k baitute egiaztatuta hizkuntza-gaitasuna.

Pasa den urteko ekainean aurkeztu zuen Uemak Eusko Legebiltzarrean, kide dituen udalerrietako osasun-zerbitzuei buruzko azterketa. Osakidetza-ko eta Osasunbideko lanpostuak aztertu zituen, eta ikusi postu horietako bakoitzean ari diren langileek zer hizkuntza-eskakizun daukaten egiaztatuta. Azterketa horrek, ordea, hutsune bat zuen, Tolosaldeko datuak ez baitziren ageri. Uematik azaldu dutenez, «Asuncion klinikak ematen du osasun-zerbitzu publikoa eskualde horretan, Osakidetza-rekin daukan itunaren bidez, baina ikerketa hartan ezin izan zen Asuncioneko lanpostuen egoera aztertu, zuzendaritzak ez baitzion informazio hori eman Uemari». Bada, Eusko Legebiltzarrak egindako eskaeraren ondoren, datu horiek helarazi ditu Asuncion klinikak orain, eta Tolosaldeko osasun-zerbitzuari buruzko azterketa osatu ahal izan dute. Analisia egiteko informazio ofiziala erabili du Uemak. Osakidetza-ko lanpostuei dagokienez, Osasun Sailak Eusko Legebiltzarrari bidalitako informazioa erabili du, hau da, lanpostu guztien zerrenda, eta momentu horretan bakoitzean zegoen langileak egiaztatuta zeukan hizkuntza-eskakizuna. «Asuncioneko postuei dagokienez, postu bakoitzak zer hizkuntza-eskakizun daukan zehaztuta ez dagoe-

Asuncioneko 13 medikuk dute euskara-gaitasuna egiaztatuta

Uemaren azterketak ondorioztatu du, zentroak dituen 79 medikuak kontuan hartuta, Osakidetza ez dagoela hain egiaztatze maila apala duen ospitalerik



Asuncion klinikako langileen %53k du egiaztatuta postuari legokiokeen hizkuntza-eskakizuna. R.C.

nez, lanpostu-klase bakoitzak Osakidetza-ko daukan hizkuntza-eskakizuna aplikatu zaie Asuncion klinikako postuei, eta alderatu da langileetatik zenbatek daukaten eskatutako gaitasuna.

%59K GAITASUNA EGIAZTATUTA
Tolosaldeko osasun-zerbitzuan denera 532 lanpostu daude, eta gehienak, 377, Asuncion klinikari eta Belateko zentroari dagozkie (%71); Osakidetza-ko zerbitzu-koak 155 postu dira (%29). Bada, emaitza orokorrak erakusten du Tolosaldeko osasun langileen %59k daukatela postuari dago-kion gaitasuna egiaztatuta.

Osakidetza-ko begiratura, iaz egindako azterketak erakutsi zuen eskualdeko langileen %77k

dutela egiaztatuta postuari dago-kion hizkuntza-eskakizuna. Batez bestekotik behera daude bost arlo: pediatria (%50), zuzendaritza (%70), erizain laguntzaileak eta zeladoreak (%75), teknikariak (%75) eta erizaintza (%76). Batez bestekotik zertxobait gorago daude administrariak (%79), eta familia-medikuek daukate Osakidetza-ko hizkuntza-eskakizunen betetze-mailarik handiena (%86).

Asuncion klinikatik jaso dituzten datuek argi utzi dute Osakidetza-ko baina «okerragoa» dela egoera, langileen %53k baitu egiaztatuta postuari legokiokeen hizkuntza-eskakizuna. Ehuneko hori Osakidetza-ko ospitaleekin alderatu du Uemak: «Arabako eta Bizkaiko ospitale gehienek

baino ehuneko hobe da Asuncionek, baina Gipuzkoako ospitale guztiek baino apalagoa».

Analisi xeheagoa egiteko, Asuncion eremuz eremu aztertu dute. Errehabilitazio-zerbitzuak du euskara-gaitasuna egiaztatuta langileen ehuneko handiena: bostetik lau pasatxo (%82); kasu gehienetan, gainera, hiru garren hizkuntza-eskakizuna daukate, EGA. Zerbitzu hauetan ere gehienek dute gaitasuna egiaztatuta, nahiz eta ehuneko jaitxi egiten den: administrazioan, garbitzaileetan, teknikoetan, erizain laguntzaileetan, sukaldetan eta erizainetan. Txanponaren beste aldean daude zeladoreak, zuzendaritza eta medikuak: horietan, langile gehienak daude eskakizuna egiaztatuta gabe.

MEDIKUENA NABARMENAGOA

Medikuen kasua azpimarratu du Uemak. Izan ere, 79 sendagile daude Asuncion klinikari, eta horietatik 13k dute hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta; gainerako-ei dagokienez, lau medikuk lehen hizkuntza-eskakizuna dute lortua, eta 62k, batere ez. Zerbitzu guztietan da gutxiengoa hizkuntza-eskakizuna lortutako sendagileen ehuneko, etxeko ospitalizazioan izan ezik: bost mediku daude, eta hiruk badute erreferentziatzeko hizkuntza-gaitasuna. Gainerakoetan, nabarmen txikiagoa da ehuneko: kanpo-kontsultetan, hamasei medikuek bost dira; larrialdietan, hemezortitik hiru; eta ospitaleratzean, 21etik bi. Gainerako zerbitzuetan, berriz, ez dago hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta daukan medikurik.

Uemak dio sendagileak soilik hartuta, Osakidetza-ko ez dagoela hain egiaztatze-maila apala daukan erietxerik: «apalena Arabako ospitaleak du, %33rekin, Asuncionen bikoitza. Areago, Gipuzkoako ospitaleetan, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dute gehienek: Donostia Ospitalean, adibidez, %55ek, Asuncionetik 40 puntu gora».

Osatutako azterketa Tolosaldean kide dituen udalei bidali die Uemak, eta baita Osasun Sailari eta Eusko Legebiltzarrari ere, «nork bere politiketan kontuan har dezaten osasun-zerbitzuen egoera zein den».

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu



**Asier Arana
Ecnarro**



Beti gogoan izango zaitugu.

Naiararen KmO-ko korrikako lagunak.

«Atea irekitzea da bestearengana gerturatzeko modu bakarra»

MAIXA ZUGASTI MUÑOA
IDAZLEA

Erein argitaletxearekin kaleratu berri du hirugarren nobela, 'Atarian' izenekoa; zahartzaroaz eta maitasunaz jardun du bertan eta hiru pertsonaia nagusiren ahotsak bilduz osatu du intrigaz zipriztindutako istorioa

Jon Miranda

Hiru ahots ageri dira Maixa Zugastiren (Tolosa, 1973) *Atarian* eleberrian, Leandro, Juan eta Paularena. 21 kapitulutan, sei egunetan gertatzen dena kontatzen dute hiru pertsonaiek, elkarri hitza emanez, bata bestearen atarira agertuz.

Zer esan nahi du atariak zuretzat?

Nire bizitzan espazio berezia da. Usabal auzoan hazitakoa naiz eta guretzat ataria zen gure etxearen eta baserriaren arteko lur zatia. Hor ibiltzen ginen jolasten. Atarira ateratzen genituen aulkiak eta bertan biltzen ginen amaren izebak, etxeokak... batez ere emakumeak. Helduen kontuak hor entzuten nituen eta josten ikasi nuen bertan. Badu esanahi metaforiko edo sinboliko bat ere.

Elkar topo egiteko espazioa da.

Elkarren atarian bizi garela uste dut. Eta atea irekitzea da bestearengana gerturatzeko modu bakarra.

Non dusorburua eleberriak?

Niretzat txikitan ezagutu nituen espazioak garrantzitsuak dira. Gure baserria hutsik geratu zen eta niretzat oso mundu itxia izan den hori desagertzen joan da pixkana. Hor abiatu zen istorioa eta aldi berean iruditzen zitzaidan zahartzaroko maitasuna ez dela asko aipatzen den gai bat.

'Atarian' idazterakoan zein izan da ernamuina?

Oinordekotza kontuak dira alde batetik eta maitasunaren aurrean beti bizi izan dudana mundu itxi hori. Baserri mundukoa izan eta kaletar batekin ibiltzeak zekarren guztia ere bueltaka neraman buruan eleberria idazterakoan.



J.M.

Non kokatu duzu eleberria?

Hernanin dago kokatuta, baina ernamuina berez Tolosan du. Oso gauza bitxia gertatu zitzaidan. Ni konturatu nintzen Tolosan niretzat garrantzitsuak izan ziren espazioak Hernanin agertu zitzaizkidal berriro. Baserria, gure kasuan hutsik geratu zena, Hernanin Buxkando bihurtu zen. Kasualitate hutsa izan zen. Atentzioa deitu izan didate beti etxe berrien artean egoten diren eta bizirik irauten duten baserriek. Gero, agertzen dira, ikastetxeak. Nik Laskorain ikastolan ikasi nuen, harako bidean Iurreamendiko egoitzatik pasatzen ginen eta hango adinekoekin hitz egiten genuen. Kasualitatez, Hernanin lan egiten dudana ikastetxearen pareparean dago Sandiusterri adinekoen egoitza.

Eleberriak thriller puntua du?

Niretzat estiloa oso garrantzitsua da, baina uste dut irakurleak eskertzen duela hari bat, intriga bat. Nire gustuko idazleek hori asko zaintzen dute. Obsesio moduko bat izan dut gertatu izan zaizkidan gauza batzuekin, eta zehazki, gaizkile mota batekin. Iñaki

Piñuel adituak esaten du bizitzan 60 psikopatekin topo egingo dugula. Oso jende kaltegarria da, arrasto handia uzten duena. Nire literatur lanetan ere utzi dute azarna, itxura denez. Gisa horretako pertsonaia ageri dira, L.A.A.-n, *Ahotsak eta itzalak*-en eta orain *Atarian*-en. Hurrengo nire lanean, ez nuke horrelako pertsonaiarik azaltzerik nahi.

Juan da hori guztia islatzen duen pertsonaia.

Bai. Saiatzen naiz pertsonaia konplexuak egiten, zuri eta beltzak izan ez daitezen, manikeismo horretatik urruntzen. Horrelako pertsonaia ere gai dira maitatzeko, edo beste norbait maitemintzeko. Bi aurpegi dituen jendea da. Arriskutsuak dira, beldurgarriak, boterearekin jokatzaren dute. Horrelako pertsonaiek beraien burua dute helburu nagusia. Juanek, adibidez, limurtzen du inguruko jendea.

Leandro nola definituko zenuke?

Nik asko maite dut. Buxkandoko jabea da Leandro. Bere nahiaren kontra sartzen dute adinekoen egoitzan eta hor azaltzen dira oi-

nordekotza arazoak. Maitemindu egiten da, ume bat bezala. Oso gai interesgarria iruditzen zait. Oso material gutxi topatu dut horren inguruan, zahartzaroa idazle gehiagok landu dute, baina maitasuna eta sexua, askoz gutxiagok.

Paula neska gazte bat da. Kontrapisu bezala funtzionatzen al du pertsonaia horrek?

Bai. Pertsonaia horretan daude islatuta nire ikasleak. Nerabe bat da, helduen munduaren atarian dagoena eta lehen maitasuna bizi duena. Hor bizi dituen arazoak, nik ikusi ditut nire ikasleengan. Oso ikasle bereziak dira, asko maite ditut. Jende gehiena atzeritarra da, eta ekonomikoki zailtasun handiak dituen. Oso gai konplexua da.

Txandaka narratzaileek egiten dute kontakizuna lehenengo pertsonan.

Oso kontzienteki dago aukeratuta egitura. Nik miresten ditudan idazleek lortzen dute formalki adieraztea esan nahi dutena. Esanahia eta forma oso lotuta daude.

Ahots horiek ezberdintzea asko kostatzen al zaizu?

Saiatu naizena da hiru pertsonaia oso ezberdinak direnez, hiru ahots ezberdin eraikitzen. Juane-na, bere izaeragatik, intelektualki adierazi nahi duenagatik, jasoa goa da. Paularena egiteko, gazteek erabiltzen dituzten espresioen zerrenda bat pasa zidaten. Bi hizkuntzak nahasten ditut Paularen elkarriketetan. Ez da erraza asmatzen hori nola egoki adierazi. Gero adinekoen kasuan, hitanoa erabiltzen dut; berreskuratu nahi nituen garai batean esateko moduak. Haurtzaroan entzun dituzun esamoldeak liburu batean bakarrik irakurtzeak ilusioa egiten dizu, baina, aldi berean, gogorra da konturatzeko gaur egun ez duzula inor inguruan horrela hitz egiten duenik.

Belaunaldi artekotasuna da eleberriaren bestegaietako bat?

Oso gai garrantzitsua iruditzen zait. Esaten dute adinekoen egoitzek egon beharko luketela haurtzaindegien alboan. Ados nago. Ideia horrekin berriki hasi naiz ipuin bat eraikitzen. Ez dakit zergatik bereizten ditugun hainbeste bi munduak.

Pertsonaia nagusiak trantsizioan daudela esango zenuke?

Hirurak daude maiteminduta eta egoera oso ezberdinetan. Hirugarren adinekoek aurrera begira bizitzeko duten nahiaz hitz egiten dute, baina muga bat badago hor. Zahartzaroak heriotzaren atarian jartzen gaitu, halaberharrez. Nire obsesioetako bat da heriotza eta horri buruz ere aritzen naiz.

ONDO PASA SANJOANAK!

GARIKANO TOLDOAK

Araba Etorbidea, 1 - Tel. 943 65 18 29
20400 **TOLOSA** (Gipuzkoa)

Alttoyclaro

ENTZUMEN OSASUNA

Rondilla kalea, 6 · **TOLOSA**
Tel.: 943 06 33 46
tolosa@centrosalttoyclaro.com

www.centrosalttoyclaro.com



Alegiako Aralar Institutuko irakasleek, gurasoek eta ikasleek elkarretaratzea egin zuten, atzo, eskolaren aurrean. E. MAIZ

Jardunaldi jarraitua mantentzea nahi dute Aralar Institutuan

Alegiako Aralar Institutuko ikasle, guraso eta irakasleek elkarretaratzea eta sinadura bilketa egin dituzte Eusko Jaurlaritzari jardunaldi jarraitua nahi dutela eskatzeko

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

COVID-19a dela eta, azken bi urteetan jardunaldi jarraitua izan dute Alegiako Aralar Institutuko DBHko ikasleek, eta ikasturte berrira begira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak goiz eta arratsalde egitea erabaki duela eta, sinadura bilketa egin du Aralarpean Guraso Elkarrekin, eta elkarretaratzea egin zuten atzo.

«Ikastetxeok autonomia izan beharko genuke, komunitate osoaren iritzia aintzat hartuz gure erabakiak hartzeko», esan du ikastetxeko zuzendariak. «Gure komunitateak nabarmen lanaldi jarraituaren alde egin du», eta «emaila akademikoek ere hobera egin dute», adierazi du. 200 bat ikasle dira, eta

300dik gora sinadura bildu dituzte, beraz, familien gehiengo zabal batek jardunaldi jarraituaren alde egin du.

Aralar Institutuak alboko herrietako ikasle asko biltzen ditu: Amezketa, Abaltzisketa, Altzo, Orendain, Baliarrain, Bedaio eta Ikaztegieta. Guraso elkartetik ere garbi dute beraien seme-alabentzat jarraitua izatea nahi dutela: «Bazkaltzera etxera doaz, eta arratsalde guztia dute ikasteko, lanak egiteko edota eskolaz kanpoko jardueretarako. Askok egokiagoa da». Zatitua den kasuan, «17:00etan iristen dira etxera eta jada nekatuta daude». Gainera, herri horietako ikasleak derrigortuta daude jangelan gertatzen, eta ondorioz leku arazoak izaten dituzte, bazkaltzera asko

elkartzen direlako. Eusko Jaurlaritzari jangelaren egoera behin baino gehiagotan azaldu dietela ere gogora ekarri dute, eta aurreko bi ikasturteetan jarraituarekin jangelaren arazoari irtenbidea eman diotela azaldu dute. Ikastetxea prest agertu da behar gehiena dutenei laguntzeko, baina aldi berean, egiten duten eskaera aintzat hartzea nahi dute.

ERNIOBEAN ERE BAI

Hezkuntza sailari eskaera formal egin dio Aiztondo bailarako DBHko ikasleak biltzen dituen Erniobea ikastetxeko Arratzain guraso elkarrekin, ikasleek jardunaldi jarraitua izan dezaten. Astelehenean bigarren elkarretaratze jendetsua egin zuten, eta atzo bilera egitekoak ziren.

Pertsonen arteko harremanak erraztera etorri da Auzotu

E. Maiz Bidania-Goiatz

Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Auzotu proiektuari lotutako topaketa egingo du, gaur, 18:00etatik 20:00etara, Bidania-Goiatzko eskolan. Lana amaitzeko, baloratzeko eta ospatzeko garaia dela adierazi dute, eta proiektuan parte hartu duten bi komunitateak elkartuko dira: Saiaz eta Amara Berri.

Elkarrekin ikasteko helburuarekin sortu zuten proiektua, eta udazkenetik ari dira lanean «gure komunitatean ditugun erronkak identifikatzen, konponbide digitalak elkarrekin aurkitzen eta erabiltzen ikasiz», esan dute Saiaz mankomunitetetik. «Komunitate bakoitza osatzen dugunon arteko loturak ehuntzeko espazio bat da», adierazi dute. Era berean, pertsonen arteko harremanak errazten dituela, eta Teknologia Komunitarioaren kontzeptuari zentzua ematen diola esan dute.

Egindako ibilbideari begiratuiko diote, eta bidez batez, pintxo batzuen laguntzarekin ospatuko dute.

Hilaren 30a bitartean festetako kamisetak eskatu daitezke

ALEGIA // Ez da asko falta Alegiako festetarako, eta jada festa batzordea girotzen hasia da. Prest dituzte jaietarako bereziki egin duten irudia eramango duten kamisetak, eta eskaerak egiteko epea hilaren 30a da. Kamiseta nahi dutenek kultur etxean egin beharko dute eskaera, eta neurria zehaztu beharko dute. Hamar euroko prezioa izango du kamiseta bakoitzak, eta eskaera egiterako unean ordaindu beharko da. Prest daudenean kultur etxetik pasa beharko dute jasotzera.

Ongi etorri baserrira! ekimenaren barruan, Zuzitza baserria

AMEZKETA // Ongi etorri baserrira! ekimenaren zazpigarren edizioa egingo dute. Uztailak 8 eta 9an Gipuzkoa eta Bizkaiko 30 baserriarrek euren baserrietako ateak zabalduko dituzte ukui-luak, baratzeak eta landaguneak ezagutzera emateko. Familian edo lagunartean egin daitezke bisitak, eta tartean da Amezketa Zuzitza baserria. Txerriak eta behi pirenaikoak dituzte, eta uztailaren 8an izango da bisita. Izena Ongietorribaserriara.com webgunean eman behar da.



Ordutegia

Astelehena eta larunbata 09:00 - 13:00
Asteartetik ostiralera 09:00 - 13:00 eta 15:30 - 19:30
Argibide gehiagorako deitu edo zatazi

ESTETIKA TRATAMENDU AUKERA ZABALA

Nafarroa etorbidea 1, behea
943 968 993



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera

www.mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Errebotearen festa

Behar Zana elkarteko egungo errebote jokalariai zein jokalaria ohiak bildu eta Errebotea Sutan izeneko txapelketa egingo dute larunbatean

Imanol Garcia Landa


Amasa-Villabona

Errebotea Sutan txapelketa azkarra izango da jokoan larunbat honetan Villabonako Erreboteko plazan. Behar Zana elkarteak iaz bete zituen 75 urte, baina ekitaldiak aurtan ari dira ospatzen, eta horietako bat da larunbatekoa. «Iñaki Lizasoren ideia bate-tik sortu zen. Urria inguruan deitu zidan, ea parte hartu nahi nuen», esan du Igor Alejok, Behar Zana errebote jokalaria ohi eta txapelketako parte hartzaile-etako batek. «Elkartean badago argazki bat, 1975ekoa, eta bertan elkarteko bost agertzen dira txapelketa batean parte hartzen. Hortik abiatuta, lau talde osatu ditugu, egun jokatzen dutenak eta jokalaria ohiak elkartuz. Txapelketa bat baino gehiago errebotearen inguruan elkartzea da asmoa, egun polit bat osatzeko».

Lizaso deika hasi zen jokalariei eta pixkana baiezkua esan zuten. Azkenean, sei jokalariz osatutako lau talde egitea lortu dute. «Ez nuen pentsatzen hainbestek baiezkua emango zutenik, baina, bestalde, egitasmo polita da, eta aukera ona askorentzat berriro ere errebotearekin kontaktuan egoteko», esan du Alejok.

Txapelketa izaera ez duela gaineratu du, bukaera ez delako saririk emango, baina lehia izango dela ziurra da. Lau talde izango dira, bakoitza kolore batekoa. Goizean talde Txuriak eta talde Gorriak elkarren aurka jokatuko dute, eta ondoren Urdinaren eta Berdearen txanda izango da. Galtzen dutenek arratsaldean elkarren aurka jokatuko dute lehen partidari, eta horren ondoren goizeko irabazleen artekoa izango da. «Behin janzen garenan dena ematera joango gara, hori ziur», azaldu du Alejok. Bazkaria elkarrekin egingo dute, baina ez da oso oparoa izango. Hori bai, egunari bukaera afariarekin emango diote. «Hor bi partidak irabazi dituen taldeak eta biak galdu dituenak aurpegiare ezberdina izango dute», iragarri du pilotariak.

Taldeak egiterakoan ahal duten parekatuenak egin dituzte,



Ekainaren 5ean jokatutako errebote partidari, larunbatean egongo diren hainbat pilotari izan ziren. LEYRE CARRASCO

eta gaur egun dabilzanak eta aurretik aritutakoak nahastu dituzte. «Taldea bakoitzean bost pilotarik jokatzen dute, eta berez ez dira aldaketak egiten, baina egun honetarako egingo ditugu, denok disfrutatzen», zehaztu du Alejok. «Azkenean, ez da txapelketa ofizial bat, festa bat izatea nahi dugu».

ERREBOTEARI BULTZADA

Aldarrikapen moduko bat ere izango da eguna, Behar Zana elkarte sortzeko arrazoi nagusia errebotea izan baitzen, aurrerantzean ere asmo hori dutela azalduz. Bestalde, errebotean garai batean zein aritzen ziren jakiteko ere balioko du. «Batzuk urte askoz aritu gara, nire kasuan adibidez 30 urtez, baina beste batzuk 18 edo 20 urte arte aritu ziren, eta baliteke jendeak sorpresa bat hartzea zenbait jokalaria ikustean».

Erreboteak herrian bizirik jarraitzen duela erakustez gain, pilotarien arteko saltsa ere motibazio iturri izan da. «Ondo pasa-

tzeko ariko gara, eta oraindik maila ematen ote dugun ikusteko», gaineratu du Alejok. «Gero, noski, elkartearen 75. urteurrena dela-eta hainbat ekitaldi antolatuta dira, baina garbi zegoen errebotearen inguruan zerbait berezia egin behar zela».

Ahal duten bezala ari dira prestaketa lanak egiten. «Ni urrian hasi nintzen», esan du Alejok. «Lau-bost urte izango ziren zestoa utzita nuela. Hamar minutu egin eta besoak nahikoa zela esaten zizun. Abilezia ez dugu galdu, hau da, pilota zestoa sartzearena, baina besoko minak hor izan dira, eta kontuz ibili gara». Lehen entrenamendu ofiziala Eguberrien inguruan egin zuten: «Zestoarekin sei bat pilotari elkartu ginen, eta hor nabaritu zen etxeko lanak zeinek zituene eginda. Kontuan izan behar da errebotea oso gogorra dela besoarentzako, joko zuzena baita. Besteak botatzen duen indarrarekin jasotzen duzu pilota». Zuriz ez direla janzen barregarri geratzeko gaineratu du Alejok,

eta denak dabiltzala gutxi-asko entrenatzen.

Elkartean ikusmina sortu da txapelketaren inguruan, eta batez ere jokalaria ohiak berriro zestoarekin ikusten dituztenean nabaritzen da: «Entrenatzera joan eta zestoarekin ikusten gaituztenean, jendea harritu egiten da, eta berriro ere hasi ote garen galdetzen digute». Larunbatean ikusleak bilduko direla espero dute. «Partidak goiz eta arratsaldean dira, eta uste dut jendeak izango duela gogoia garai batean ibiltzen ginenak zer maila ematen dugun ikusteko. Nik neuk ere badut gogoia gaur egun aritzen direnen aurka jokatu eta nola moldatzen garen ikusteko».

Gaur egun Behar Zana elkarteak erreboteko txapelketetan parte hartzen du. «Kontuan izan behar da oso sufritua dela. Bost pertsona behar dira talde bat sortzeko. Partidak Iparraldean jokatzen dira normalean, eta igandetan izan ohi dira, azken horrek gazteentzat suposatzen duen kargarekin. Eta gero, taldea osa-

ERREBOTEAK ULERTZEKO AZALPEN LABURRA

Erreboteak tenisaren antzekotasuna du. Izan ere, tenisa bote luze-tik dator, eta errebotea eta bote luzea nahiko antzekoak dira. Plazak 80 metro ditu eta alde bakoitzean pareta dago. Alde bakoitzean bi pilotari daude zestoarekin, eta erdian, sarearena egiten, talde bakoitzeko bi pertsona daude eskularruarekin, eta beste bat saskiarekin.

Alde banatan dauden bi pilotariak saiatu behar dute airez edo arrastaka pilota beste aldera botatzen. Beste aldean pilotak bi bote egiten baditu, tantoa lortzen da. Eta arrastaka botatzen bada eta plaza banatzen duen marra pasatzen badu, tantoa da. Erdian dauden pilotariak, sarearena egiten, pilota beste aldera pasa ez dadin saiatu behar dira. Tantoak edo kintzeak kontatzeko modua tenisa bereganatu zuten, eta 15, 30, 40 eta joko izendatzen dira. Set bakarrera jokatzen da, eta hamahiru joko izaten ditu.

DATUAK

Parte hartzaileak

Gorria. Xabi Mitxelena, Beñat Iraola, Aitor Zaldia, Eneko Maiz, Mikel Rodríguez eta Iñaki Lizaso.

Berdea. Beñat Iguaran, Igor Alejo, Kepa Nazabal, Axier Etxaniz, Pedro Miguel Alonso eta Beñat Karrera.

Urdina. Jon Ander Artola, Oinatz Orue, Eneko Iturbe, Iker Urreta, Ion Zaldia eta Iñaki Otaegi.

Txuria. Sergio Sanchez, Jon Alejo, Aratz Luixa, Joseba Arruabarrena, Eneko Gorostidi eta Xabier Ayerza.

Ordutegia

10:00. Talde Gorria eta talde Txuriaren arteko partida. Ondoren, Berdea eta Urdinaren artekoa.

16:30. Goizeko bigaltzaileen arteko partida. Ondoren, irabazleen artekoa.

tu ondoren, euria egiten badu bertan behera geratzen da. Zaila da horri eustea; zortez oraindik taldea dago eta gaztetxoak ere badaude», zehaztu du Alejok.

Elkarteak ateak irekita ditu errebotean aritu nahi dutenentzako. «Jokamolde bezala ikusgarria da, joko zuzena da, abiadura handian doa pilota, jendea lurrera botatzen da...». Larunbateko festak, pilotarien topagune izateaz gain, erreboteak herrian agian indar gehiago emateko bali dezake.



Ekaitz Kortajarena, ezkerrean, podiumean. ATARIA

Bi domina lortu ditu Ekaitz Kortajarenak Espainiakoan

Danok Danenako pulsulariak zilarra lortu du bi denboratan eta brontzea total olinpikoan, absolutu mailan

Erredakzioa Zizurkil

Absolutu mailako Espainiako Halterofilia Txapelketa jokatu zen ekainaren 11n eta 12an, eta Danok Danena taldeko pulsularien artean Ekaitz Kortajarenak lortu zituen emaitza nabarmenenak. Zilarrezko domina lortu zuen bi denboratan eta brontzekoa total olinpikoan. Azpimarratzeko moduko txapelketa egin zuen, pulsulari onenekin batera aritu zen eta azken Munduko eta Europako Txapelketan dominak jantzi zituenak baino ez zuen gaititu.

Susana Davilak «zorigaiztoko» lehiaketa egin zuen, bi denboratako modalitatean zuri geratuz

eta ondorioz azkena geldituz. Eki Lizaso ere bi denboratan zuri geratu zen eta Jon Ander Iriartek «hasiberri gisa» lehiatu zuen. Igor Sasiain, aldiz, entrenatu duena kontuan hartuta, bere mailan egon zen, B txandan erraz irabaziz. Finalean 12. postua eskuratu zuen.

Asteburu horretan, Gipuzkoako Junior eta Unibertsitate Txapelketa izan zen jokoan. Danok Danenako pulsulari guztiak izan ziren txapeldunak: Mirari Maqueda 59 kilokoan, Urtzi Lusarreta 67 kilokoan, Ekain Etxeberria 81 kilokoan eta Xabier Amonarriz 89 kilokoan. Maila guztiak kontuan hartuta Amonarriz izan zen txapelduna.

Bigarren mailako aizkora txapelketako bi kanporaketa

Erredakzioa

Berastegin eta Belauntzan Gipuzkoako bigarren mailako aizkora txapelketako kanporaketa bana jokatu dira asteburuan. Belauntzan etzi, hilaren 24an izango da saioa. Elizalde pilotalekuan egingo dute kanporaketa, 18:30etan hasita. Bertan Unai Zabala leaburuarrak eta Jesus Mari Mujika ibartarrak parte hartuko dute eta beste lau aizkolariak ondorengoak izango dira: Jokin Urretabizkaia, Julen Gabirondo, Axel Larrañaga eta Yulen Aranberri.

Berastegin igandean, hilaren 26an, izango da kanporaketa, herri kirol jaialdi baten barruan. 12:00etan hasiko da jaialdia, eskola atarian, eta sarrerak 5 euro balioko du 16 urtetik gorakoentzat. Aizkora kanporaketan Ibon Garaiburu herritarra ariko da lehian eta berarekin batera Xabier Zaldua, Andoni Iruretagoiena, Aratz Mugertza, Aitor Urteaga eta Urtzi Olasagasti.

Jaialdian beste proba batzuk izango dira jokoan. Batetik, Gipuzkoako Txingua Txapelketa, Lierni Osa, Ane Urresti eta Ainitze Zumetarekin. Bestalde, Malen Barrenetxea aizkolari gazteak bere lehenengo plaza izango du, eta Udane Ostolaza harri-jasotzaile gaztea 63 kiloko koparekin ariko da. Beste saioan, *Agerre* harri bereziekin nor baino nor ariko dira hiru harri-jasotzaile: Aimar Irigoien, Jokin Eizmendi eta Jon Unanue *Goenatxo III.a*. 200 kiloko *Agerre* harri errektangularrarekin bakoitzak bi minutuko txanda eta 152 kiloko *Agerre* harri kubikoarekin bakoitzak hiru minutuko txanda.

Ane Martin, Espainiako txapeldun

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF atletismoko taldeko kideek 18 urtez azpiko Espainiako Txapelketan parte hartu dute, eta horietan nabarmenena Ane Martin izan da, 1.500 metrotan txapeldun izatea lortu baitu. Gainera, 4.32,40ko markarekin Tolosa CF-ko marka berria ezarri du. Manex Civicok zilarra eskuratu du 2.000 metro hesietan, 5.47,56rekin Euskadiko marka lortuz eta Europako Txapelketa-

rako gutxienekoa eskuratuz. Ander Aristik laugarren postua lortu du 400 metro hesietan, 54.40rekin marka pertsonala eginez. June Sudupe 1.500 metrotan finalerdietara iritsi da, 4.49rekin marka pertsonala lortuz. June Lopetegi 200 metrotan 26.18rekin finalerdietaraino iritsi da.

Bestalde, Joseba Larraurik klubeko marka egin du 100 metrotan, 10,68rekin, Ordizian asteburuan egindako saioan.

Gutxigatik ihes egin dio igoerak Laskoraini

I. Garcia Landa Tolosa

Oso gertu izan du areto futboleko Laskorain taldeak Hirugarren Mailara berriz igotzea. Afantxo taldearen aurka jokatu zuten igoera faseko finala, aurkarien etxean, eta irabazlea bakarrik igo ahal zen. Gainera, Afantxok abantaila zuen, azkenean erabakigarri bihurtu zena: berdinketa izanez gero, luzapena jokatu zuten eta hor ere berdinketa suertatuz gero, Afantxorentzat izango zen garaipena, ligan lehen postuan amaitu baitzuen.

Laskoraintzat ondo hasi zen partida, estrategiazko jokaldi baten bidez aurreratu egin baitzen markagailuan. Halere, Afantxok

buelta eman zion egoerari. Atsedendialdiaren ondoren 2-3koarekin jarri ziren, eta orduan aurkariak atezain-jokalaria atera eta berdinketa lortu zuten. Laskorainek 3-4koa lortu zuen eta partida amaitzeko hogei segundo falta zirela launakoa lortu zuen Afantxok. Luzapenean berriro aurreratu ziren tolosarrak, baina aurkariak berdinketa lortu zuten, eta 5-5 bukatu zen neurketa.

«Kolpe handia» izan zela esan du Laskorain taldeko Mikel Juaristi jokalaria. «Pena da horrela denboraldi luzea horrela bukatzea. Ikusi genuen ez zirela gu baino hobeak izan. Esan daiteke guk hobeto jokatu genuela, baina hala ere ez zen nahikoa izan».

I. Emakumezkoen Binakako Segasail Lehiaketa, lehen aldiz

Erredakzioa

Igande honetan jokatu da estreinakoz Emakumeen Binakako Segasail Lehiaketa, Almitza Segasail Elakrteak antolatuta. Eloorrioko Gazeta auzoan izango da,

12:00etan hasita, eta eskualdeko segalari ugarik parte hartuko dute bertan.

Guztira hamabi segalari ariko dira, sei bikotetan. Horrela elkartu dituzte: Irati Astondoa eta Jurgatx Agirre berastegiarrak; Luixa

Uzkudun eta Izadi Arrospide leaburuarrak; Malou Henriksen eta Susana Lopez; Alaitz Imaz hernialdearra eta Graxi Elozegi; Maide Garmendia eta Uxue Iruetagoiena; eta Ainara Otamendi ibartarra eta Angels Breto. Segas-

lari horietatik gehienek amaitu berri den Segasail Lehiaketa parte hartu dute. Lehen postua Alaitz Imazek lortu zuen, bigarren Luixa Uzkudunek eta hirugarrena Malou Henriksenek.

Almitza Segasail Elakrteak adierazi duenez, lehiaketa horren bidez aldarrikatu nahi du emakumeak plazetan ez ezik belardietan ere euren lekua egiten ari direla. «Halaber, segalaritza ere hauspotu nahi dugu 12 emakume plazan bilduz».

**BILLABONA FKE**
Arratzain Futbol Zelaiak



Labur.eus/futboleskola22-23

   Billabona Fke



ASTEAZKENA, 2022KO EKAINAK 22
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 22

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Guretzako jatorri anitzeko emakumeen bilgunea 10:00etan, Atxulondon.

Berrobi. Emakumezkoen Toka Txapelketa 11:00etan eta gizonetakoena 12:00etan, Harizpe Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen lokalean.

Berastegi. Reale Arena futbol estadioa ezagutzeko bisita gidatua Gaztelekuak antolatuta, 15:45ean. Ondoren, afari legea egingo dute eta karaokea izango dute aparkaleku azpiko lokalean.

Berrobi. Udaberriko Kulturaldia: Emakumea eta natura, 18:00etan, Etxolan.

Urkizu. Et Incarnatus-en solstizio kontzertua, Iraola pagadian, 19:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza.

Magazina.

15:00. Desafioa. Herri kirolak, Joxe Anjel Sarasolarekin.

16:00. Zebrabidea.

Magazina.

20:00. (H)ari naizela.

Bertsolaritza, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

08:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Akordeak

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Harri Salda

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Iñaki Olarra- ga Aranburu. Korreo kalea, 2.

Telefono zenbakia: 943 67 0128.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro ezegonkorra. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira eta hodei

hauek zaparradak utziko dituzte. Goizean tartekatuagoak eta ahulagoak izango dira eta arratsaldean aldiz, mardulago eta ugariago egingo du, non ez den baztertzaren ekaizak jo eta zaparrada gogorren bat izatea. Ipar/ipar-mendebaldeko haizea izango dugu eta tenperatura jaitsi egingo da, 21-22 graduan joz goia.



Bihar. Giro nahasia. Goizean hodei ugari egongo da zehar, baina apenastu bustiko du eta giroa lasaia izango da. Arratsaldean ordea, hodeiak ugaritu egingo dira eta ekaizetara joko du, non zaparrada mardulak botako di-tuen. Haizea goizean hego-mendebaldetik ibiliko da, arratsaldean aldiz ipar-mendebaldetik. Tenperatura igo egingo da, 23-24 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

'Ataria'-ko harpidetza inoiz baino merkeago

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailari esker, harpidetza 35 euroan eskuratu dezakezu; egin zaitez Atarikide eta lagundu Tolosaldeko albisteak libre, euskaraz eta kalitatez argitaratzen

Erredakzioa Tolosa

Atarikide berriak ezinbestekoak direla askotan aipatu izan dugu. Orain gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura sailari esker, ATARIA-ko harpidetza prezio murriztuan eskuratu daiteke. Euskarazko irakurzaletasuna bul-tzatzeko kanpaina abian jarri du Aldundiko Kultura sailak eta kanpaina horretako diru partida bat tokiko hedabideen harpide-tzak sustatzera bideratuko du, TOLOSALDEKO ATARIA-ko harpide-tzak tarteko.

ATARIA-ko jarraitzaileek 15 eu-roko bonu hauek erabili ahal izango dituzte eta horiei esker ATARIA-ko 2022ko harpidetza prezio murriztuan eskuratuko dute: ATARIA-ko papereko harpi-detza 35 euroan eta Atarikide digi-tala 20 euroan. Gogoratu era berean, ATARIA-ko harpideek hu-rrengo urteko errenta aitorpene-an onura fiskala jasotzen dutela, ordaindutakoaren %30eko ken-karia izanik.

Beraz, izan zaitez Atarikide eta lagundu iezaguzu guztion proiektu hau indartzen. Horrela, erabiltzaile izateaz gain, proiektua babestuko duzu. Eta gogoratu ATARIA-ko harpide izatean, Atarikide bakoitzak bere aletxoa jarrita, ATARIA indartsu eta zabal bat osatzen jarraituko dugula.



Atarikide eta Atarikide digitala izateko aukera paregabea duzu. ATARIA



URKAZ
eraikuntzak

Okobio, 52 20491 • BELAUNTZA • Tel.: 943 670 445 • info@urkaz.com
www.urkaz.com

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO ATARIKO MATERIALA!

Deitu
943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!

KATILUA	BOTILA	POLTSA	PACK-A
Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 8 euro.	Atarikideak: 20 euro.
Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 10 euro.	Atarikide ez direnak: 26 euro.